Erref. kodea: LAF-210-121

Izenburua: Frantziskotarren inguruko ikerketa

'Urrundik jarraik bederen
San Frantsesen urratsei'

x

## Urrundik jarraik bederen

## San Frantsesen urratseri

Heren-Ordeneko haurride maiteak, garizuma eta barur egun hanietan ez ginuke behar murmurikaz edo sinkulinez arizan. Hortaz den, Jesu Krichto gure Jaunak hitz ohargarri hauk erraiten dauzkigu : « Barurtzen zireztelarik, ez jar, itchuratiak bezala, begitartez ilhun. Itchurati heiek beren arpegiak gaizten dituzte, gizonen aitzinean barurtzale agertzea gatik. Egiaz diotzuet hartan dutela beren sari guzia »

Beraz gauden bozik edo alegerarik, alegia deus ez, gure baruretan. Ez uzkur geldi. Buruko min bat edo bertze ethor balekigu jan gabearen ondorio, ez hargatik kecha ; nehori ez gaudezkiola hortakotz muthur ! Jasan dezagun jasan ichilik nahi gabea.

Ez zait iduri Heren-Ordenekoak deusek hortarat susta dezazkela hobeki, nola ikusteak San Frantses beren Aitaren eredua edo etsenplua.

San Frantses Asisekoak bederatzi garizuma egiten ohi zituen, urte oroz. Eta garratzak gero ! Huna lerro-lerro zer moldez banakaturik ezarri zituen Hauste z has eta.

Lehenbizikoa Elizarena, girichtino guziek marmarizarik gabe ereman behar luketen hura.

Bigarrena Izpiritu Sainduaren ohoretan : Pazko zaharrez has eta Mendekosteraino.

Hirurgarrena Apostoluena : Mendekoste zortziurren azkenetik Jondoni Petri bezpera arte.

Laurgarrena Ama Birjinarena : Jondoni Petri biharamunaz geroz Agorrilako hamabortzerainokoan.

Bortzgarrena Jondoni Mikaelena : Andre dena Maria zeruratzeko pestatik Buruilaren hogoi eta bederatziraino.

Seigarrena, Saindu Guzien ohoretan : Jondoni Mikael egunetik Omiasaindu arte.

Zazpigarrena Jesusen sortzearen ospatzekoa : Omiasainduz has eta Eguberriraino.

Zortzigarrena Errege-magoen ohoretan : Jondoni Ichtebe egunetik Trufaniala.

Bederazigarrena, Jesu-Krichtoren baruraren izenean : Trufania biharamunetik harat berrogoi egun.

Beraz holache urte guzia baruretan eremaiten zuela San Frantses gure Aitak erran ginezake. Barur horiek etziren gero askotan ikusten diren erdibarur ñuñuka horietarik! Garratzak ziren. Huna haren bizitzean irakur ~~dizaken~~ daiteken gertakari bat. Asmaluko ahal duzue hartarik noradinokoan haidur zitaken gure Heren-Ordenaren eraikizailea.

Behin gogoratu zitzaion Garizumako denbora saindu guzia bakartasunean iragan behar zuela. Cortona inguruan Zela deitzen dioten tokian jarri berria zaukan etche bat gazteen altchatzeko. Etche hori Silbeztro freidearen eskutara utzirik, joan zen bada Perusako antzire edo ur-maleaAren erdian aurkitzen zen ugarte edo irlara. Bi ogiz bertze janaririk etzuen ereman. Hauste egunarekin zen. Erran zion untzichkaz ekarri zuen adichkideari othoi nehori etzezon sala nun zenik eta berriz haren bilhan ethortzeko asteazken sainduz. Nork jakin, nork asma Jainkoak baizik, zer penitentzia egin ahal zuen orduan? Bizkitartean chehetasun hunek argi izpi bat emanen dautzue. Berrogoi eta bi egunez, zonbat uste duzue ereman bi ogietarik jan zuela? Ezinezkoa iduria gatik ihardespena, egia hauche : ogi bat eta erdi gelditzen zitzaion Garizuma horren azkenean.

Hortik ageri da hertsiki ari zela San Frantses. Ez gitazke oro haren urrats saindueri jarraik hatzez-hatze. Urrundik bederen garaizkola, laño-lañoki barurtuz, sinkulinik gabe. Jainkoak gero zeruan saria emanen dauku.

---

Louis Dea



1521
1247
274

## Fransiskotarrak
## Ipar-Euskal-herrian

Aita Villasantek galde eginik, lotu naiz titulu horrek deitzen duen sailari. Zorigaitzez Frantziako Iraultze egunetan, argi berrien izenean, artxibo eta liburutegi gehienak erre egin zituzten, berezihi komentuetakoak. Dokumentu gutirekin gaude. Beraz gure lanak ez duke zenbaiten igurikitzen zuheen hedadurarik. Aipatuko ditugu Sokadunak, Kaputxinak, Santa Klararen Alabak eta Heren-Ordena.

### Sokadunak

Veillet zaharrak bazauhan, San Frantses hil baino lehen (erran nahi baita 1226 garren urtearen aintzinttoan) haren Hauride xumeak sartu zirela Akitanian, bai eta Baionan berean. Bainan ez dugu heien etxea eraiki zeneko agiririk.

Aldiz seguretik badakigu 1242-ko urtarrilaren 6-an, Trufania egunarekin, Raymond de Donzac apezpikuak eta kalonjeen Kapitoak antolamendu bat izenpetu zutela Aita Sokadunen (Cordeliers) alde: uzten zitzaien Errobi (Nive) ibai-bazterrean eliza ttipi bat, parrokia-eskubide guziekin: meza eman zezaketen, meza-saria kobra, predika, sakramenduak eman, hilak ehortz; olatak haatik itzuli behar zituzten Kapitoari eta apezpikuari.

P. LAFITTE

# Frantzes Asis-tar sainduaren Ordenak

## ipar-aldeko Euskaldunen artean

# Frantzes Asis-tar sainduaren ordenak Ipar-aldeko Euskaldunen artean

Izenburu, titulu nasai horrek hitz emaiten du lan gotor luze zerbait. Zorigaitzez, Argi berrien izenean, XVIII garren mendeko Iraultza frantses handiak komentuetako artxibo eta liburu hainitz suntsitu zituen. Horrela dokumentu gutirekin gelditzen gara eta gure lerro hauiek ez dukete irakurleak igurikatuko zukeen hedadurarik.

Aipatuko ditugu laburzki Frantziskano fraile, serora eta Heren Ordenak, erranez nola diren sartu eta bizi izan orai Baionako diosesa deitzen den eskualdeko euskaldun partean.

## A- Lehen bortz mende eta erdiak

### I. Fraileak

René Veillet, XVII garren mendean Baionako Elizaz hainbertze berri utzi daukun kalonje jakintsunak bazaukan, San Frantzes Asistarra hil baino lehen danik, beraz 1226-ra gabe, haren « hawride xumeak », sartu zirela Baionan, Akitaniatik. Bainan ez dugu lekukotasunik ezagutzen erakusten daukunik nun noiz finkatu zuten

ofizialki beren egoitza Lapurdiko hiri nausian.

Haatik, 1242-ko urtarrilaren 6-an, Trufania egunarekin, huna non Raymond de Donzac apezpikuak eta katedraleko kalonjek antolamendu bat sinatzen duten <u>Cordeliers</u> edo sokadunekin. Horrela deitzen zituzten frantziskanoak, gerrikotzat soka bat zekarketelakotz. Antolamendu hortaz fraileri uzten zitzaien Errobi (<u>Nive</u>) itsas-bazterrean eliza ttipi bat, parropia-eskubide guziekin: meza eman zezaketen, meza-saria kobra, predika, hilak ehortz, sakramenduak banaka; bizkitartean hanitoari behar zioizkaten itzuli elizan bildu <u>olatu</u> guziak.

Sokadunek laster ukan zuten beren xokoan arrakesta handia: hiriko jaun-andere asko jarraikitzen zitzaizkien, eta aberats hainitzen ganik ukaiten zituzten emaitza eta ondorciotasun ederrak, lurrez ala diruz. Egin ziren ontasun ugariren jabe. Hiritik kanpo zituzten ukaitzen gainerat, orai "Saint André" deitzen den auzoan «arsenal» izeneko eremu zabal guzia heien eskuetan zen; bertze

zenbait etxe bazituzten Baionako karriketan.

Bazuten beraz ongi hainitzen egiteko ahala, eta egiten zuten saritzat eginak zitzaizkieten aipatu fagore horiek.

Dokumentu eskasak ez dauku sokadun «conventuels» horietako izen handirik utzi : ez teologo, ez predikari, ez idazle, ez da nehor aipaturik.

Aipatzen dituzten fraile bakarrak dira gaizki zerbait egin duten fraile batzu ; hala nola Aita Malet, Aita Sainduaren karta faltsu baten egilea (1247), edo Dominakoen kontrako gudu harmatu batean heien priora hil et bi fraile zauritu zituztenak (1385).

Baionako paper zaharrek bakan baino bakanago izendatzen dituzte sokadunak : ikusten dira bakarrik okasione handietan katedraleko elizkizunetan parte hartzen : adibidez, apezpikua berri sartzetan ; apezpikuen ehortz-egunetan ; penitentzia-otoitzetan ; Sakramendu Sainduaren prozesionetan ; erregerendako edo helde batzuen karietarat manatu gau-beila edo bederatzi-urrenetan.

1521-ean gertakari handi batek inarrosi zuen sohadunen komentua.

Frantziako errege François lehenari Aita Saindu Leon X garrenak eman zion komentuetako ontasun hainitzez jabetzeko baimena. Baionako fraileak biziki sedarraturik gelditu ziren.

Gehiago dena, Frantziako « conventuels » sohadunek ukan zuten Erromako manu berri bat, baizik eta behar zutela denek bilakatu « Frères mineurs de l'Observance de Saint-François » zahina, izenarekin araudia ere bertzalakatu zitzaien

Veillet-ek dio, orduz geroztik gutituz joan zirela. XVII garren mendean Baionako komentuak ez zituen gorenaz 22 edo 23 lagun baizik.

Bizkitartean, galduak galdu, heien egon-lekuak lur-alde ederra estaltzen zuen oraino. Elizaren ate nausiak Errobi itsaierat emaiten zuen eta kalostra ondo-ondoan zen. Baratze zabal bat hedatzen zen gibelean, oraiko Arsenal-eko murruaren luzetasunari zetxikola.

Bainan etxea engoitik berentzat handiegia zutelakotz, asko jenderi zenbait zati alokatzen zizkieten, bizilegi edo berdin saldegi gisa.

1677-ko urtarrilaren 25-ean izigarriko istripua gertatu

zitzaien : uritearen ondorioz Errobi ibaiak gaindi eginik, urek funditu zizkieten lurrak eta harginlzak, pareta puska batzu ere bazeramaztela.

XVIII garren mendean komentua oraino handiegi izanez, "Observantins" gaizoek etxe-parte batzu Lalanne hiriko jaun bati alokatu ziozkaten : bertzeak bertze, hiru biltegi nasai eta selauru bat. Toki horietan Lalanne horrek aterbatu zuen batailon suisa bat. Soldaduetarik berexteko trenkadura bat eraiki zuten, elizako orginerat zeraman ate batekin.

Iraultzako mementoan, soldaduen zerbitzuko ziren selauruа, bortz biltegi, hamabi gela. Sankristian hausitu zituzten sei kalitza, bi iguzki saindu, bi ur-arnotako untzi, sei eliza-mantar, lau bandera-mutil ; liburutegian bederatzi ehun liburu, eskuz idatzi bihirik gabe.

Hor bizi ziren zazpi apez, zazpi fraide xoil, eta orgina joile « donatu » bat.

Iraultzailek 15 gizon horiek botatu zituzten beren egoitzatik deus gabe.

1808-an Napoleon-ek Baiona hiriari eman

zizkion "Observantin"-en harginitza guziak, geroztik "Arsenal" delakoaren ontasun bilakatu baitira.

Hona beraz nola bukatu zen Baionako komentu frantziskano zahar horren istorioa, bortz mende eta erdiren buruan. Ez dakigu ordea zer probetxu atera zuketen Euskaldunek horko fraileen ganik.

+ + +

Egia da Materre, <u>Doctrina christiana</u>-ren egilea frantziskanoa zela; merezimendu handia ukan zuen euskara ikasi-ta, euskaldunentzat idatzi baitzuen bere liburua. Bainan ez dakigu La Réole-tik nola etorri zen Euskaldunen artera. Nehork ez du frogatu Baionako komentuan egon zenik.

Zenbaitek pentsatu du Donibane Lohizune eta Ziburu bi herrien arteko ugarte batean eraikia izan baitzen « Recollets » deitu frantziskano batzuen komentua (1611), han egon zitekela Materre; bainan ez zaiku iduri, "Recollets" horiek « de l'<u>étroite</u> observance" baitziren, Materre ez bezala.

Zer nahi den, komentu horrek iraun zuen Iraultza arte. Zazpi apez ziren eta fraile xoil bat. Bortzek

handik lekhora hautatu zuten elgarrekin bizitzea. Soldado eta marinelen omoniergoa egin zuten zenbaitek.

Haramburu idazlea ere frantziskanoa zen, eta Sarako seme. 1634-eko ekainaren 28-an, haren Probintzial François Bonal-ek "vénérable" deitzen du, bere adina gatik, eta erakusten dauku "de l'estroicte observance de Saint François" dela. Beraz hau ere ez zen Baionako frantziskanoen adarrekoa. Huni zor diogu *Devocino eskuarra* (1635)

\+ + +

Kaputxinoak ere Frantziskano-adar bat dira. 1614-ean Akitaniako heien buruzagiek pentsatu zuten behar zutela komentu bat kokatu Baionan. Aita Jacques d'Auch igorri zuten hiri hortara buruzagiekin mintzatzera, bainan gogorrarena egin zioten. Ondoko urtean, jakinik Frantziako Elisabeth, Espainiako Felipe IV garrenaren andreak Baionara behar zuela, haren otoiztera joan ziren, ararteko jar zedin, hiriko jaunen ganik ardiets dizaien Baionan egoiteko leku bat. Elisabeth andereak aisiki lortarazi zeien

Saint-André auzoan nahi zuten tokia, Dominikanoeri hurbil-hurbila. Handienean egin zen heien sartzea, aitoren seme, printze eta printzesa askorekin, apezpikua buru. Tipitik hasirik, etxearen handitzeko eske ibili ziren Paris-en eta Madril-en gaindi.

Behardunak ziren, beharrezian bizi, eta jendek biziki atxikiak zaizkien: predikatzen ari ziren, dotrinaren erakasten, kofesatzen, eri bisitatzen.

Izan zituzten fraile famatuak, hala nola Aita Clément Azkaingoa eta Aita Ambroise de Lombez. Aita Clément komentuko buru izana zen eta euskaraz predikatzale Lapurdin gaindi.

Iraultza hastean 17 lagun ziren, hetan zazpi apez. Bat salbu, bertze guziak leial egon zitzaion erlisioneari. Heien liburutegian ba omen ziren euskarazko liburuak: denak izan ziren suntsituak.

## II. Serorak

Klarisak Baionan baziren XIII garren mendeko ~~[illegible]~~ azken hogoi urtetan segurik. Ezen Angleterrako Edouard lehenak eman zeien Bernote iturritik uraren hartzeko baimena, Mosoraleko auzoan, 1283-an.

Gerotago dokumentuek aipatzen dituzte St Benedit Saint-André-ko eremuan (1309)

1520-ean gaztelu berriaren oinetan daude, bainan ilki-araztEn dituzte horlik, gerlako hargintza batzu hor egin beharrez.

1680 Tarride deitu auzo batean, Michel Duvergier de Yoannis abokatak mailegatu etxean.

1688-an, Montau harrikan jarriak dira Sabaterie harrikaren hantoinean.

\+ + +

1636-an Baionako Ntarizek asmatu zuten Jatsun muntatuko zutela komentu bat, Uztaritzeko parrean, Faldarakon edo Sorhoeta deitu lekuan.

Buruzagi emana zuten euskaldun bat: Grâce de Saint Martin.

24 serora ziren eta gehienak euskaldunak, izenek erakusten duten bezala: Harriet, Sorhaindo, Gorlary, Hiriart, Dagourrette, Belsa, Elsaurdy, Dolhagaray, Dechart, Silvette, eta abar.

Oihe ederrak baitzituzten Baionako buruzagiek bildu zituzten Baionarat lau urte eta lau ilabeteren buruan.

Beren otoitzez bertzalde, XVII eta XVIII garren mendetan eskol-emaile dira eta eri-zain, Baionan dituzten etxe batzuetan.

Iraultzak, askatasunaren izenean, haizatu zituen.

* * *

## III <u>Heren Ordena</u>

Veillet-en paperetan errana da Baionako beren elizan « Confrairie de Saint François » eraiki zutela 1254-an. Uste dugu "heren ordena"-ren bertze izen bat baizik ez zela. XVI garren mendetik harat bi izenak ordena berarentzat.

Asko elizkizunetan parte hartzen baitute, obra horren izena ateratzen da katedraleko zeremonia handiak aipu direlarik.

Iraultza aintzinean ez dugu liburu bat baizik euskaraz Heren ordenaz ari zakuna :

Jean Haramboure. <u>Devocino eskuarra</u>, Bordeaux 1635, hiru edizione ukan dituena, XVII garren mendean.

* * *

## B. XIX garren mendean berriz haste

Iraultzak Frantziskotarren ordena guziak suntsitu zituen Ipar Euskal-herrian. Ondoko mendean behar izan ziren ahal bezala berriz muntatu.

Lehenik Kaputxinak etorri ziren Lapurdirat 1842-an, Espainiako etsai liberalek haizaturik : jarri ziren Uztaritzen, buru zutelarik Aita Fidele Berakoa. 1852-an Hiriburun eman ziren ixtant batentzat. 1856-an orai den lekuan eraiki zuten beren komentua Alexandre Dubrocq jaunak present egin lur batean. 1888-an, orduan artino ko fraileak itzuli ziren mugaz bertze alderat eta heien ordain etorri Tolosa-ko (Toulouse) kaputxinak. Oraino ere Baionako etxe hortan berean daude

Heien lana : otoitz egitea, predikatzea, auzoko arimez arta hartzea, Heren Ordeko hauridéen sustatzea. Dembora batez eskola serafikoa bat ere bazaukaten

Predikari famatuak baziren heien artean, hala nola Aita Exupère, Aita Gonzalve, Aita Albert

1903-ko udaberrian Frantziako lege batek kaputxinak desherritu zituen eta Espainialat joan ziren Baionakoak,

egun hobe balzuen haiduru.

Bestenutik ez zitzaien Ipar Euskal-herria ahantzi. Oyarzungo « Legarrean » izeneko etxetik heldu ziren muga pasatuz Lapurdi, Barenabarre eta Ziberon predikatzerat eta Heren Ordenako haurrideen sustatzerat.

1911-n Gipuzkoako herri hortan Aita Eusebe Larresoro-koak (Etxeratide) ilabetekari bat euskarazkoa sortu zuen : *San Frantsesi jarraik gaizkion* Lapurdiko hizkuntzan.

Aita Blaise Batagny Lehendarra, 1906-etik 1914-erat joan-etorka ibili da Oyarzun-etik mugaz haindirat eta haindi huntarik Oyarzunerat, euskaraz predikatzen. 1914-eko *Les voix franciscaines de Toulouse* editorialak atera zuen haren liburu ederra : Heren Ordenako Erreglaren xehetasunak (206 pl. (19,5 x 12,5).

1914-eko gerlakari, kaputxinoak berriz etorri ziren Baionarat, eta Aita Eusebek jarraiki zitzaion bere ilabetekiari, izena laburturik : *San Frantses*.

Egungo egunean ez dute Baionan fraile euskaldunik.

Aita Bruno batek guti edo aski ikasi zuen eskuara eta kantika batzu ere eskuaraz antolatu San Frantsesen ohoretan. Bainan bertze norapeit igorri dute. Haiduru demde ez zaienetz fraile eskaldunik agertuko.

+ + +

1851-ko maiatzaren 5-ean Pio IX-garrenak baimena emanik Aita Jose Aresok Donapaleun ezarri zituen, ondoko ekainaren 12-an « les Franciscains de l'Observance ». Momentu hortarik sortu dira Frantzian, lehen aldikotz frautzaz geroz, bi Probintzia frantziskano : Akitaniakoa eta Parisekoa.

Misione eta erretreta predikatzen ari ziren, bai eta idazten ere bai frantsesez, bai españolez, bai eskuaraz. Hain xuxen, 1874-ean Aita Antonio Beovidek Baionan ager-arazi zuen liburu bat Heren Ordenakoentzat

Heren Ordenaz arte hartzen zuten bai eta Pieuse Union de Saint Antoine deitu batasunaz : 1878-an batasun hortan bazauzkaten sei mila lagun, Donapaleuko Frantziskanoen artxiboen arabera.

1903-an horiek ere behar ukan zuten desherritu gerla handiaren ondotik berriz itzultzekotan.

Egungo egunean hiru Aita eushaldun segurik badituzte.

* * *

Serorak ez ziren Ipar Euskal-herrirat ilguli XIX garren mendean.

Berrikitan etorririk badira frantziskano serora multxo bahar batzu:

- Soeurs de Saint François d'Assise, Donapaleun eta Atarratzen, erizain.
- Franciscaines missionnaires de Marie, Kanbon: Jean Elissalde apez zenak ager-arazi zuen heien lehenbiziko buruzagiaren bizitza eusharaz: Ama Maria Pasionekoa, 101 pp. Baiona, 1930.
- Franciscaines de Montpelier, Baionan.

* * *

Heren ordena berriz piztu zen XIX garren mendeko bigarren partean.

Ordena horri buruz egin liburuak hor ditugu lekuko:

- Heren-Ordreco escu-libria igante ~~ta~~ bestetako officio berriekin, Oloroen, 1860.
- San Frantsesen hirugarren ordenaco edo Heren Ordreco escu-liburua, J(ean) E(tchepare) hazpandar apezak

bortz aldiz seguraik ateraia asko moldez, Baiona, 1862, 1870, 1884, 1885, 1888.

- <u>San Francisco Asisacoaren hirugarren ordenaco haurrideen escu-liburua</u>, aita Beovidec eguina, Baionan, 1874, (284 p.)
- <u>San Frantsesen hirugarren ordenaco erregla munduco presunentzat</u>, [D. Lapeyre] 1884
- <u>Heren Ordreko anaia arreberi bi hitz</u>, J.P. Arbelbide, Lille, 1888 – lau plama bakarrik bokazioneaz.
- <u>Erlisionea</u>, J.P. Arbelbide, Lille, 1890 479 plametarik 134 heren ordenari emanak: lan premiatsua.

Mende huntan ez dira agertu euskaraz heren ordenari buruz bi titulu baizik:

- <u>Heren-Ordenako Erreglaren chehetasunak</u>, Aita Blaise Babaquy, Toulouse, 1914
- <u>San Frantsesen deia</u>, bizpahiru plama (1912)

Kaputxinek eta Frantziskanoek elgar adituririk, diosesako Heren Ordena hiru eremutan partitu zuten: Baiona, Donapaleu eta Pabe. Haurridego zenbait

Kaputxinen aita-menean, bertze zenbait Frantziskanoen, bainan 21 berdin lagunduak dira batzuez ala bertzez.

Zorigaitzez azken denbora hauietan, ez du iduri Heren Ordenak arrakasta handirik baduen Ipar aldeko euskaldun parropietan. Aita Eusèbe hilez geroz, elgarren arteko aldizkaririk ere ez dute.

* * *

## San Frantsesi buruz Lapurdiko literaturan

**Biografiak:**

Larregui – *Testamen zaharreco eta berrico historioa*, 1777, bigarren tomoan: *San Frantses* (pp. 395-405) eta *Santa Clara* (pp. 441-447)

Joannateguy – *Ehun bat sainduen bicitcea*, 1876
San Franses Assisecoa Aitadea (pp. 329-334)

**Kantikak**

Zaldubik : *San Frantses Aita ona*

Iratzeder-ek : *Xoriek sistu*

Aita Brunok : a) *O gure aita San Frantses maitea...*
b) *Zure semeak gira nola zu ez maita.*

P. LAFITTE

# LAN HUNI DATXIKON BIOGRAFI LABURRA

Archives departementales des Pyr. Bt.e. section H.

CANU (Jean). Les ordres religieux masculins. Fayard, Paris, 1959

CITA-MALARD. Un million de Religieuses. Fayard, Paris, 1960

DARANATZ (J.B.) Le Père Clément d'Ascain (1696-1781) Bayonne, Foltzer, 1921, 18 p.

" Le Convent des Récollets de Ciboure-St Jean de Luz. (Sciences, Lettres, Arts) Bayonne, 1934

" Autour de Bayonne du XIV au XVII siècle d'après les archives notariales bayonnaises (S. Lettres, Arts) 1932 – 1938

" Faldaracon. Sorhouette et Yatxou (Sc. Let. Arts) 1940

DUBARAT (V.) Le missel de Bayonne de 1543, Pau, 1901 (Très importante introduction)

DUBARAT et DARANATZ. – Recherches sur la ville et sur l'Eglise de Bayonne : manuscrit du chanoine René Veillet, avec notes les gravures, 3 tomes, 1910, 1924, 1929, Pau.

DUCÉRÉ (Edouard). Dictionnaire historique de Bayonne, 2 tomes, 1911 – 1915. Bayonne.

ETCHEVERRY (Michel) Entre curé et religieux (Sc. Lett. Arts) 1935.

LAFITTE (Pierre) Le Père Blaise de Mendionde. Ed. "Gure herria"

" Les Congrégations religieuses du diocèse de Bayonne dans la deuxième moitié du XIX siècle, revue Corde Magno de Belloc, n° 83, 1970.

PERRET (Mo) L'ordre franciscain à Bayonne depuis sept siècles (brochure) Bayonne, 1926

POYDENOT (Henry) Récits et légendes relatifs à l'histoire de Bayonne, 2 vol. Bayonne, 1875, 1879.

Vinson (Julien). <u>Bibliographie de la langue Basque, 1890.</u>

Notes des capucins de Bayonne et franciscains de St Palais (1975)

# Frantzes Asisiar sainduaren ordenak

## Ipar-aldeko Euskaldunen artean

Iduriz titulu nasai horrek hitz-emaiten du lan luze gotor bat. Zorigaitzez, XVIII garren mendeko Iraultza handiak, argi berrien izenean, suntsitu zituen artxibo eta liburuak, bereziki komentuetakoak. Horrela dokumentu gutirekin gelditzen gara eta gure lanak ez duke zenbaiten igurikatzen zukeen hedadurarik.

Aipatuko ditugu Frantziskano fraileak, Klarisak eta Heren Ordena, erranez nola diren orai Baionako diosesa erraiten diogun eskualdean sartu eta bizi izan diren.

### I. Frantziskanoak

XVII garen mendean Baionako Elizaz hainbertze orrialde bete dituen idazlari bikainak bazaukan San Frantzes hil baino lehen (1226-ra gabe) haren haurride xumeak sartu zirela Baionan Akitaniatik. Bainan ez dugu lekukotasunik ezagutzen erakusten dokumentik nun noiz finkatu zuten beren egoitza Lapurdiko hiri nausian.

Bainan 1242-ko urtarrilaren 6-an, Trufania egunarekin, huna non Raymond de Donzac apezpikuak eta katedraleko kalonjeek antolamendu bat sinatzen duten Cordelier edo sokadunekin. Hola deitzen zituzten frantziskanoak, zeren gerrikotzat soka bat baitzekarketen. Fraileri uzten zitzaien Errobi (Nive) ibai-bazterrean eliza ttipi bat, parropia-eskubide guziekin: meza eman zezaketen, meza-saria kobra, predika, hilak ehortz, sakramenduak eman:

274 urteren epea doi-doia aipatu baitugu, arte luze hortan zer bilakatu ziren bada sokadunak?

Baiona hiriko paper zaharrek ez gaituzte, ondikoz, biziki argitzen: fraile horiek bakan baino bakanago izendatzen dauzkute: ikusten ditugu bakarrik okasione handietan katedraleko elizkizunetan parte hartzen. Adibidez apezpiku berri sartzetan, apezpikuen ehortz-egunetan, penitentzia-otoitzetan, Sakramendu Sainduaren prozesionetan, erregerendako edo helde batzuen kariətarat manatu gau-beila eta bederatziurrenetan.

François lehenak ontasun gehienetarik biluzi zituen urtean aldakuntza bat gertatu zen.

* * *

Frantziako sokadunak eta Baionakoak ere bilakatu ziren « Frères mineurs de l'Observance de Saint-François", laburzkiago deitzen ohi baitzituzten "Observantins": izenarekin araudia ere berritu zitzaien

Veillet-ek dio, orduz geroztik gutituz joan zirela: XVII-garren mendean Baionako komentuak ez zituen gorenaz 22-23 lagun baizik.

Bizkitartean, galduak galdu, heien egon-lekuak lur-alde ederra estaltzen zuen oraino. Elizaren ate nausiak Errobi ibaierat emaiten zuen, eta kalostra ondo-ondoan zen. Baratze zabal bat hedatzen zen gibelean, oraiko Arsenal-eko murruaren luzetasunari zetxikola.

Bainan, eltea engoitik berentzat handiegia zutelakotz, asko jenderi laziezkiten zati zenbait alogaturik, bizitegi edo berdin saldegi gisa.

1677-ko urtarrilaren 25-ean izigarriko istripua gertatu zitzaien: uritearen ondorioz Errobi ibaiak gaindi eginik, urek funditu zizkeien lurrak eta

hargatik kapitoari behar ziozkaten itzuli elizan bildu olata guziak.

Sokadunek laster ukan zuten beren sohoan arrakesta handia : hiriko jaun-andere asko jarraikitzen zitzaizkien, eta aberats hainitzen ganik ukaiten zituzten emaitza eta ondoriotasun ederrak, lurrez ala diruz. Egin ziren ontasun ugariren jabe. Orai "Saint André" deitzen den auzoan « arsenal » izeneko eremu zabal guzia heien eskuetan zen eta bazituzten bertzalde han-hemenka frango etxe eta etxalde erosirik. Ongia baztерretan ausarkian egiten zuten, eta ahalduntzat ikusiak ziren

Dena da ahalaz zuzenki baliatzea, eta ez neurriz kanpo. Fraileri ere gerta dakikeie izariaren gainditzea. 1247-an Aita Malet sokadunak ausartzia ez ttipia erakutsi zuen. Adixkide bazituen bizpahiru apez kalonjeen kapitoan gogotik sartuko zirenak. Bere gain hartu zuen sar-araziko zituela. "Numerus clausus" zelakoan, ez zuten onetsi. Aita Malet badoa, eta handik zenbait ilabeteren buruan heldu da apezpikuaren ganat, baizik-eta itzuli bat egin duela Erromarat eta Aita Sainduaren karta bat dakarla, Baionako kalonjentzat : « ez da "numerus clausus" ez bertzerik : behar dituzke lagun berri batzu berenkolakatu. » Zorigaitzez Aita Malet-entzat frogatua izan zen karta ez zela Aita Sainduarena.

Zer nahi den kasu hortaz, denbora joan, denbora jin, handik 274 urteren buruan, Leon X aita Sainduaren karta egiazko batek sokadunak jo zituen Frantziako François lehenari baimena eman zionean komentuetako ontasunez jabetzeko. 1521-ean Baionako fraileak bizkiki xedarraturik gelditu ziren.